

II. ERANSKINA

Eranskin honen xedea da arautzea nola emanen zaien arreta hipoakusiaren arreta goiztiarraren programako pazienteei eta hipoakusia duten 3 - 26 urte bitarteko pazienteei 71/2009 Foru Aginduan ezartzen diren baldintzak bete eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren berariaz baimena lortzen duten osasun-establezimenduetan.

Osasun-establezimendu horietan pazienteen fluxua eta informazio klinikoaren fluxua errespetatuko dira eta honako lan hauek egingen dira:

- Nafarroako Ospitaleguneko Otorrinolaringologia Zerbitzuko medikuek bideratzen dituzten pazienteak aztertu
- Audifonoak hornitu
- Audifonoak egokitu
- Pazienteen gainbegiratu eta kontrolatu
- Audifonoak mantendu
- Otorrinolaringologiako mediku espezialistak trebatzen lagundu

Pazienteak aztertu eta audifonoak hornitu

- Pazienteak aztertuko dituzte eta hilabete iragan baino lehen audifonoa eman eta egokituko diete; ondoren pazienteak kontrolatuko dituzte eta audifonoak mantenduko dituzte.
- Lehen arreta ematen denetik hilabete iragan baino lehen zentroek txostena bidali beharko diote Nafarroako Ospitaleguneko Otorrinolaringologia Zerbitzuari. Gero hark materiala hornitu denez eta produktua ongi egokitu denez egiaztatuko du.
- Hornitzen diren audifonoak I. eranskinean zehazten diren prestakuntza-mailetara egokituko dira. Horren arabera: ADAP2 maila, gutxienez 9 kanal/banda dituzten audifonoak; ADAP3 maila, 10 kanal/banda baino gehiago dituzten audifonoak.

Audifonoak egokitu

- Audifonoa egokitzeko fasean honako lan hauek egingen dira:
 - Audifonoa nola erabili behar den azaldu pazienteari edo haren ahaideei.
 - Audifonoa egokitu pazientearen entzumen-atalasera, lehen erabileran, eta lehen eguneko lehen kontaktua eroso izatea lortzea. Helburua egokitzapenaren % 70 lortzea izanen da.
 - Ondoko asteetako egokitzapen-berrikuspenetan soinu-presioa apurka-apurka igo anplifikatu beharreko maiztasunen arabera:
 - 15 egunen buruan egokitzapenaren % 85era iristen saiatu.
 - Hilabeteren buruan egokitzapen osoa (% 100) lortu behar litzateke (kasu berezietan izan ezik; ORL zerbitzuarekin hitz egin)
 - Egokitzapena burutu eta lortu entzumen-atalaseak batez beste 20 dB +/- 10dB izatea hizketa-maiztasunetan (kasu berezietan izan ezik; ORL zerbitzuarekin hitz egin)
 - Pazientearen zaintza pertsonalak azaldu

- Audifonoa nola zaindu behar den azaldu, ez narriatzeko eta entzumen-protesiari ahalik etekinik hoberena ateratzeko
 - Audifonoaren konektagarritasuna argiro eta erraz ulertzeko moduan azaldu pazienteari eta beraren gurasoei
- Azterketaren eta egokitzapenaren faseak amaitutakoan lehen txostena eginen da ORL zerbitzuko FEOrakin koordinatuta (eta behar den kasuetan Nafarroako Ospitaleguneko logopedarekin ere bai) arazoak postaz edo telefonoz konpontzeko. Honako datu hauek adierazi beharko dira gutxienez:
- Pazientearen datuak eta data
 - Pazientearen anamnesia entzumenari dagokionez
 - Otoskopia/bideotoskopia
 - Tinpanometria
 - Audiometria tonal liminarra, adinera eta patologiara moldatua, isiltasunean eta zaratarekin (portaeraren behaketa, Ewing Test eta audiometria ludikoa)
 - Audiometria orientazio-erreflexu baldintzatuaren bidez (adinaren arabera)
 - Ahozko audiometria, adinera eta patologiara moldatua, isiltasunean eta zaratarekin
 - UCL zehaztea
 - Audiometria tonala eta ahozkoa eremu librean, audifonoarekin eta audifonorik gabe, adinera eta patologiara moldatua
 - Audifonoen funtzionamendu elektroakustikoaren analisia: errendimendu egokia adinerako eta patologiarako

Pazienteak gainbegiratu eta kontrolatu

- Pazientea gutxienez sei hilean behin gainbegiratuko da eta horren berri emanen zaio ORL zerbitzuari; horrez gainera, gertatzen diren gorabehera jakingarri guztien berri ere emanen zaio.
- Pazientearen bilakaeraren txostenean honako datu hauek adieraziko dira gutxienez:
- Pazientearen datuak eta data
 - Pazientearen oraintsuko historia / bilakaera entzumenari dagokionez edota audifonora moldatzeko prozesuari dagokionez
 - Otoskopia/bideotoskopia
 - Tinpanometria
 - Audiometria tonal liminarra, adinera eta patologiara moldatua
 - Audiometria tonala eta ahozkoa eremu librean, audifonoarekin eta audifonorik gabe, adinera eta patologiara moldatua (audifonoaren hobekuntza funtzionalaren balorazioa)
 - Audifonoen funtzionamendu elektroakustikoaren analisia: zenbat dB pazientearen entzumen-atalasearen gainetik.
 - Balorazio audioprotetikoa
- Pazientearen bilakaera honela gainbegiratuko da:
- Produktua egokitzen denetik hilabete pasatutakoan, pazientea protesira nola moldatu den argitzeko
 - Sei hilabeteren buruan: azterketa audioprotetikoa eta audifonoaren kontrol elektroakustikoa
 - Hamabi hilabeteren buruan: azterketa audilogiko audioprotetikoa eta errendimenduaren kontrol elektroakustikoa
 - 12 hilabetetik aurrera, berrikuspena sei hilean behin
 - Malgu jokatu behar da audifonoaren arazoak konpontzean

- Kontroletan honako lan hauek egingen dira:
 - Hodiak aldatu
 - Hezetasuna kendu kanpian
 - REM audiometria 7 urtetik beherakoei
 - Hortik gorakoei: audiometria eremu librean, audifonoarekin eta audifonorik gabe, tonala eta ahozkoa, hobekuntza zehazteko
 - Audifonoaren errendimenduaren kontrol elektroakustikoa
- Nafarroako Ospitaleguneko Otorrinolaringologia Zerbitzuak eskatzen duenaren arabera, baimendutako osasun-establezimenduak harremanetan izan beharko dira Arreta Goiztiarrarekin (0-3 urte) eta Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroarekin (NHBBZ), aldizkako bileretara joateko (hilean behin), eta honako hauekin koordinatu behar dira: ORL zerbitzua, logopeda, ikastetxeetako psikologoak eta orientatzaileak.

Audifonoak mantendu

- Zentro audioprotesikoak audifonoak mantendu beharko ditu. Pazienteei audifonoekin batera haiek mantentzeko ekipoa ere emanen die (hezetasuna kentzeko aparatua...). Hori guztia audifonoaren prezioaren barruan dago.
- Moldeak pazientearen entzumen-hodietara moldatzeko modukoak izan behar dira, ORL zerbitzuko mediku espezialistak egindako preskripzioarekin bat etorritik.
- Matxuraren bat gertatuz gero, zentroak kortesiazko audifonoa eman beharko dio pazienteari, gama berekoa edo goragoko gama batekoa; audifono hori pazienteari ipiniko zaio, bestea konpontzen dagoen bitartean erabil dezan.
- Baimendutako osasun-establezimenduek bermatu behar dute audifonoa FM sistemarekin konektatzen ahal dela, ikasgelako irakaspenak entzuteko. Horretarako, Arreta Goiztiarrarekin eta Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroarekin hitz egin beharko dute, sistemak bateragarriak izan daitezen.
- Establezimendu komertzial bat hautatu ondoren, bertan jarraitu beharko da batez besteko bizitza osoan (I. eranskina).

Nolanahi ere, zentro audioprotesikoen egitekoak Nafarroako Ospitaleguneko ORL zerbitzuaren edo Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuaren jarraibideen bitartez aldatu ahal izanen dira.

